

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

310n. zenbakia

urrilla 2005



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

2005-2006 IKASTURTEA

OGEI TA AMAZORTZIGARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 135 E

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK
COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 -
URRUTIZKIÑA 94 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 10'AN

38º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 135 E

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 94 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 10 DE OCTUBRE

EGO-AMERIKA

Atlantik-Itxasorantza zabal eta Itxaso Bare'rantza estu, Andes mendiak egiten dabe zati bi Ego-Amerika.

Andes mendiak dira munduko mendi-katerik luzeena, 7 500 k. luze eta erpiñik gorena Akonkagua, 6 959 m.'koa dabela.

Iparraldean Amazonas ibai luzea ta zabala dago, munduko ibairik urtsuena eta Brasil'en itxasoratzen dana, Atlantik itxasora sartzeko.

Giro epela dagoan lekuetan, Txile'ko alde batzutan, esaterako, laranja eta maastiak dagoz ugari eta Arjentina'n gari-solo aundiak.

Arjentina'ko uriburua dan Buenos Aires da kultura-arloan eza-gunena. Zazpi milloi biztanle ditu uri onek eta munduko amar uririk aundiaren artean dago.

Abere-arloan aberatsena Arjentina da, batez beikiak eta ardikiak. Ardien kokalekua munduaren egoaldeetan da, Amerika'n, naiz Afrika'n naiz Ozeania'n.. Lur-garriaren iparraldean gitxiago dira.

Arjentina'n, gaiñera, liñoa, aleak, igaleak eta kotoia dira lur-azaleko aberastasuna eta lurpean, barriz, ugari dagoz arrorioa, ikatza, beruna, kobrea edo burdin-oria, eta beste gai asko.

Aberatsa da ba, Arjentina eta erritarrik geienak txiro edo gosez bizi dira. Ori zergaitik dan? Alde batetik lengaiak edo "materias primas" iparraldera merkeegi saltzen diralako, baiña, batez be, diru-zaintza lotsagarria dalako. Ustelkeria ugari!


Txile luzea da, iparraldetik egoalderaiño, eta orregaitik giro guztiak dauz. Alde batetik Itxaso Barea eta bestetik Andes mendiak edur zuria beti agirian dabela.

Zabalera ez da 50 km. baiño

Munduan nitratorik geien saltzen dauan laterria da Txile. Maatsez eta lur-gaiñeko igalez be aberatsa.

Pinotxet Ugarte agintari ankerrak kalte aundiak egin arren, ekonomi-arloan ondo jokatu eban. Txile da laterri-artearen zorrik ez daukan Egoamerika'ko laterri bakarra.

Antxiña Inka aurreratuak bizi ziran Peru-aldean.



Ongi-etorria egin Kortesi Mexikon.

Ondoan dago Kolonia jakintsua eta alboan Benezuela arrorio-arloan munduko irugarrena.

Simon Bolibar euskal jatorrikoak askatu zituan lurralde oneik.

Lurralde guztietan indar aundia dauke Euskal-Etxeak, batez be Arjentina ta Benezuela'koak.

Labur-labur, aberastasunak edo irabazbideak: Benezuela'n arrorioa, nonnai lurpeko meatzak, tabako-orria ugari solo zabaletan, abere-talde ikaragarriak Uruguai eta Arjentina'n, emen gautxoak zaindari dirala. Gogoratu "Martin Fierro" edo "Matxin Burdin", Jaka Kortajarenak euskeratua.. Kautxua inditarrak landu eta urtua, Brasil'en kotoi-arlo ikaragarriak, bananak tokirik geienetan, akeita edo kafea ugari batez be Brasil'en. Brasil aundia da eta aberatsa, munduaren itxaropena... Maatsa ugari Txile'n, langintza, batez be aragi latakook, tea lortzen da iñon baiño geiago eta kakaua batzen dabe kontu aundiaz.

Meatzik aberatsenak Kolonia'ko urre ta platinozuloak dira.

Edertasun-sailllean Rio Janeiro'ko itxas-kolkoa da munduko tokirik zoragarrienera.

Ikusgarriak dira margoz beterik jazten diran dantzari inditarrak toki guztietan.

OLAZAR'tar Martin'ek

ELORDUY TA URRESTI'TAR JON ADIZKIDE JATORRARI

Gauzaz beterik dago
Elorduy-ren baratza,
egiz, pozgarria
urrezko eguzkia
dizdizera ederrez
dau lagun maitia.

Zeru urdiña agurka
goizian goiztik dator
argi zabalagaz,
barratza maitalea
betik gora begira
eskerrik onenaz.

Piperraren lorea
zuri-bitzetan dator
orlegi artean,
usain gozoko lore
janari biurtzen da
urrezko udean.

Tomate gorri gorri,
ondo, dotore dator
eguzki goritan,
lora zuri zuriak
sortzen dabe azia
on-etorrietan.

Baina gozo gozoak
eztitan dagoz goizez
eguzki sorreran,
ederragoak dira
gatzagaz gozaturik
maian egokeran.

Kalabas ta kipula
baratzaren erdian
osasuntsu dagoz,
lur maitaleak dira
arrokeria barik
edertasun giroz.

PAULIN

EUSKAL ASTEA

Urtero lez, euskerazaleak alkarteak aurtan be EUSKAL ASTEA eratuko dau zemendiaren 21'etik 25'era, gure GIZARTE EXTXEAN (Colón de Larreategi, 14, 2º, eskria. Arratsaldeko 8'retan). Sasoiz iragarriko dira izlariak eta gaiak.

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

MENDIETAKOAK, SABEL-SAKELDUNAK

Mendietako piztiak euren bizi-modurako ondo gertatua dagoz: Ulea ugari otzaren aurka, artzaren antzera lo zorroa igaroteko oiturea, orkatz edo aker baltzak arkaitzpean aurkitzen dau kerizpea, auntzak ekaitzaren aurka gogorrak izaten dira muiñoetan janaria aurkituz, edur-sagua, erbia ta mixua mendietan bizi dira baiña mendi-erpiñetan geien aurkitzen dan orkatz baltzak, bas-ardiak eta arranoak dira. Oneik ez dagoz iñoren menpean.

Adar txikidun orkatz edo aker baltza arro zutunduten da aitzaren erpiñean berago dagon bas-ardiari begiratzeko.

Asia'n aurkitzen doguz Imalaia-inguruan panda txikia eta aundia. Antxe baita saman V zuria daroan artz baltza ta edur-leoi nabarra.

Iñurri-zale itsua dalako izenean daroa ori "iñurri-artza'k", orretarako izadiak atzamar luzea eta mustur luzea emon dautsoz. Iñurri ta termita pilloak aienatzeko, orretarako dau metro-erdiko miin luzea ta itsaskorra.

Pangoliñoak aldika lurtean eta aldika zugatz ganean bizi dira eta ez dauke agiñik, armadilloak osterata agin txikiak daukez, euren jantzia azurrezko eskatak dira ozkol antzera, orrelan euriari naiz etsaiari bildurrik ez izateko.

Piztien artean ikusi daikegun gauzarik arrigarriena, euretariako batzuk umeak eurakaz eroateko sabelean boltsa bat eukitea da. Begiratu dagiegun olakoai.

Kanguru gorria gabaz mendi goietan egoten da, baiña Australia'n ondo ezagutzen dabe baserritarrak "Zaar" deritxon kangurua. Kanguru-emea illuntzean bere umeak sabelean epeletan daroazela iges joaten da mendian gora eiztarien bildurez. Ume onek txiki-txikiak dira jaioten diranean, (0,20 m.) baiña ille bi barru azi egin dauz amaren esneak. Aurreko anka biak bular-aurrean dauzala, zutunik jarri leiteke, beste batzutan sendoaren gaiñean jesarten da.

Kanguruak 5-10 m.ko jauzia egin leike eta eukaliptuan k o a l a k e m o t e n

dautsoez gozotzat, baiña baso aretan beste pizti-mota asko egoan, kuskusa esaterako, bere zuur beillegi eta begi aundiak dituala, kosu maltzurra be bai eta bese sabel-sakeldun asko.

Ejipto dan lakoa izatea, Nilo

ibaia daukalako da: Nilo-ondoan ibar eskutua dago eta ortik kanpora dana da area, dana basamortua.

Nilo ibarrak zabalena dan lekuan 50 km. baiño ez daukoz, baiña ezea ta aberatsa da. Goitik ekarten dau urak lur emonkorra urtero eta orixe da beti Ejipto'ren aberatsbidea. Nilo munduko ibairik luzeena da, asi Biktoria zingira-inguruan eta Lurrarte itxasora eldu arte 6.500 km.'ko bidea egiten dau.

Ibai onen alboetako lurretan garia, igaleak eta liñua artzen da ugari.

Ura kontuan dala ejiptoarrak urtean iru aro daukez: Uriolearena, ereitearena eta uztarena. Aro bakoitxak ogetamar eguneko lau illebet dauz eta egutegia osatzeko bost jai gaiñeraten dabez.

Nilo-ondoan dagoz iparretik egora bideak: Trena ta gabarrak.

Ibaiaren ertzetan kokatzen dira uriak.

1902n. urtean egin zan Asuan'go andaparea argi-indarra lortzeko eta ura urtearen barruan banatzeko.

AFRIKA: BUZTIÑEZKO ERRIAK.

Sahara'ko Niger ibaiaren ertzean Kano uri musulmana dago, karabanen bidekurutzea eta gaur egazkiñak bateko tokia dana.

Uri onek buztin gorritzko esia dauka, XV gizaldian egiña, amabost m.'ko lodierek eta 25 km.'ko luzerea daukana. Kaleak estuak eta biurriak dira, etxe batzuk biribillak, besteak lautuak, bizitza bakarrekoak. Guztiak dira buztiñez egiñak. Ateak palmondozkoak. Buztin barria emoten dautsee etxeari euri-ostean.

Etxe artean palmondo aundi eta ederrak ugari.

Erriaren erdian azoka-lekua dago eta Afrika osoko gaiak saltzen dira: kotoia, narrua, zaldiketarako jesarlekuak, kristala, metala, aragia, piperrak, labanak... beberiarrena eta bestea tuareg'tarrena.

AFRIKA: EMAKUME GURPILDUNAK.

Basamortuaren eta basoen bitartean dagon "Morroien lurraldea"n antxiñako morroien ondorengoak bizi dira. Neskak euren aurpegiak itxusitu egiten dabez eta orretarako gaztetan nesken ezpanak zulatu egiten dira eta gurpil txiki batzuk sartu eta barbarik ezin egin izaten dabe, zarata batzuk baiño. Belarriak be antzera zulutzen dabez metalezko biribillak sartzeko, saman kollarrak eta jantzi gorriak gorputzean ikusten jakez.

Gaur olako oiturak galtzen doaz.

Baiña Afrika'ko gauzarik arrigarriena baso baltza edo oiana eta bertako landarak eta biztanleak dira. Zenbat biziera ezbardin eta zenbat oitura! Sarritan onartu-eziñezkoak!

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua

ERRIALDE GUZTIEN EDESTIA KRETARRAK (K.A. 3500-1400)

Kreta Lur-Arteko itxasoaren barruan dagoan ugarte txiki bat, itxura baten garrantzi-bakoa, baiña jakintzen kondairari begiratu ezker, Europa'ko jakintza guztien artean lekua egokia dauka. Ikusi daigun zer diñon jakintza onerri buruz gidari dogun liburuak.

Adoretsua izan bear zan antxiñako gizona itxasoko ur aundietara sartzeko, baiña Nilo-inguruan bizi ziran erriak antxiña asi ziran beste bizi-leku batzuren billa, orretarako itxasorako itxasoko ur orlegia euren ontziakaz ebagita.

Afrika'ko iparraldetik etozan batzuk eta Lur-Arte itxasoaren ipar-sortaldetik beste batzuk.

Ugarterik ugarte ibilli ziran kai egokien billa eta gauari bildur aundia eutsela. Olako batzuk arraunai sendo eragiñaz, Kreta ugarteak aurkitu eben.

Urtean joan eta urteak etorri, aberri sendo biurtu zan Kreta, laterria sortu eban itxas-erririk zaarrena.

Kreta'k, ugarte-errietan oitura izaten dan lez, itxas-merkataritzari oratu eutsen.

Ugarte-barruan bide luze bat ebagi eben, mendiak eta zelaiak ikertzeko eta ara sartzan asi ziran Afrika'tik etorten ziran eta Konosos uriburua joiazen merkatariak eta orregaitik ikusten ziran bide aretan zamarien illara luzeak.



Unerik egokienetan ostatuak egin ziran merkatarien atsedan-leku izateko, bear izan ezker, jana ta ostatua aurkitu egiezan. Zamarientzat janariak be or aurkitzen ebezan.

Okerreko jazokizunik izan ez zeitean, zelet-etxeetan gudari zelatariak egozan bidaztien ziurtasun eta babeserako.

Ez ziran peitzen otoitz egiteko jainkotegiak be.

Bide luze arek askotariko komerentziak eskintzen ebazan.

Kreta'k berak emakumezko jainko bat eukan. Au batzutan egazti biurtzen zan, beste batzutan abere, edo beste itxura batzutura, baiña gogoz beti zan bat bera.

Jainko-eme ori erriagandik ur-urtean bizi zan eta erritarren estutasunetarako samur-samurra zan. Ez eukan Ejipto'n, Asiria'n eta Babilonia'n agiri ziran jainko gogor

arein antzik. Erriaren gidari zan bizitza onetarako eta gerokorako.

Ori uste dabe jakitun kretazaleak, baiña oraindiño ez dabe ondo ulertzen kretatarren izkuntza zarra. Orregaitik, arretaz arakatu bear izan dabez agiri diran irudiak eta margo-lanak.

Marrazkietan idazki asko aurkitu dira, eta laster igarten jake abedea gurearen antzekoa dala. Tintaz idazten eben, batez be lapiko ta olako buztin-lanen ertzetan, izkiak buztin-barrura sartzan dirala. Iñoz metaletan zizelaz irarri be bai.

Oraintsu asi dira jakitunak kretarren idazkera ori irakurri al izaten.

Ez doguz ba kretarrak oraindiño ezagutzen, urrik emon be ez, baiña gauza batzuk ba-dakiguz: Euren bakezko urte luzeetan Lur-Arte itxasoa ontziz ondo neurtu ebela, Ejipto'n eta urtean dauken Asia'n merkatari ibilli zirala...

Kreta zarreko etxe-ondakiñetan aurkitu dira erri aretako tresneri-zatiak, euren bizikerea ulertzeko.

Inguruko ugarteetan eta Grezia'n bertan uri barriak sortu ebezan kretarrak, orretarako lur-aztertzaileak eta kolonizatzaileak bialduta.

Eta ugarte beraren barruan be ba-ziran uri ederrak, aizen inguruetan, mendietako aldapen barrenetan, muñontorretan... Etxe-bizitzak mailla ezbaridñetan eta bata bestearen gainean dirala. Eta orretarako oiñarri sendoak ezarten ebezan lenengo.

Lur-ikara asko izaten zan ugarteetan eta etxeak ondo oiñarrituak eta sendoak izan bear eben. Dana dala, lur-ikarak sarritan etxeak irauli ebezan.

Egiten ebezan aundi-etxe ederrak be, ondo apainduak, barruan ur-odiak bide dirala uguztegi dotoreak dabezela, bitartean atsedena artzeko itxasora begira begirategi ederrak ipiñita.

Bizi-modu atsegingarria zan Kreta'koa: jolasak ugari, zezenketak noizean bein, jai-egunak sarritan, eta aundiki-etxeetan jai-aldi eder bereziak.

Ez ete ziran biurtu orrelan bizi ziran kretar areik lanerako alper eta gudarako bigun?

Ez dakigu ziur egoera orretara eldu ziran ala ez, baiña greziatar latzak Knossos'ko erregeari zergak ordaintzea ukatu ebenean, armetan jarri ziran eta itxasoan kretarren ontzidia eta legorrean euren agintariak ausi eta ugartearen jabe biurtu ziran greziar orreik. Kreta'ko erria auts biurtuta geratu zan, aintziñako gomutaki zar bat lez.

Arrezkero be beti izan dira biztanleak Kreta'n, baiña erritar apalak ez antxiñako arein antzekoak, ez ziran arein maillara eldu ez merkataritzan eta ez ezertan.

Dana dala, berarizko aitapena zor dautso edestiak Kreta'ri, bere jente goiztarrak, salerosle trebeak, erlejiño bigunekoak, biziera aurreratuak eta ederti-arloko lan goragarriak munduaren jakintza aberastu dabelako.

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua

SALMOAK

81A. JAUNA APOSTULUAI AGERTU JAKEN

Egun berean agertua zan
Pedro apostoluari,
Mariak esan ondorenean
buru izango zanari.
Pedro bakarrik ixil zegola
Jauna agertu berari,
ta geroago agertua zan
apostolu guztiari.

Mariak esan zuen egunez
beste bi ikasleari,
Jerusalendik Emausera
tristuran zijuaztenari.
Bat zan Kleofas, bestea Lukas
ebanjelista danari,
kanpotar baten antza zuala
agertua zan berari.

Santu Markos ta Santu Joanek
diote biek egia.
Batek dio: “Mariak juanak
zala illunpe aundia”.
Atera ziran oso illunez
ta bidean eguzkia.

Andikan laister agertua zan
Jauna barrura sartuta.
Esana zien: “Pakea zuei;
Ni naiz, jakin ikututa”.
Apostoluak gelditu ziran
pentsaketan bildurtuta.
Begira nere oin da eskuak
dauzkatela zaurituta.

Ezagutu; zuen Maixua
eta ez espirituak;
espirituak ez du gorputz
ta zioten ikutua.
Apostoluak biotza zeuken
neurri gabe bildurtuta;
ikusi eta entzuteakin
etzan izan sinistua.

Esana zien: Badaukazue,
emaidazue jateko.
Arrai errea eta ezta
zuen pozez emateko.
Parte jan zuan eta bestea
zuan danai partitzeko.
“Ez dakizue? Pasa dan dana
esana zan betetzeko”.

Atek itxita zeudela berriz
zuen Jauna agertua;
esana zien: “Pakea zuei”,
ta Tomasi zan deitua.
Esana zion: “Ator nigana
izan nadin ikutua.
Ementxe daukat saiets-zauria
eskutan iltze zulua.

Etzaitetz izan sinisgogorra,
baizikan izan zintzoa”.
Ikutu zitun bere zauriak
ta zan sinistutakoa.
Lurrean auspez esana zion:
Nere Jaun da Jaungoikoa.
“Ikusteakin sinistu dezu?
– Tomasi esandakoa–.

82A. JAUNAK PEDRO JARTZEN DU BURU

Agertua zan Jesus berriro
Tiberias itxasuan,
Pedro ta Tomas, Natanael
bi Zebedeok zituan.
Pedrok arrantzara ertetzeko.
asmoa agertu zuan,
danak lagundu zien gaubez ta
bat arrapatu etzuan.

Salbatzaillea agertua zan
berai urrengo goizean:
“Ezer jateko bai al dezue?”
“Batez” esan zuenean,
“Saseak bota eskui aldera”
Jaunak esan zienean,
ala botata, txalopa bete
karga jaso eziñean.

Joan santuak Maixua zala
laister ezagutu zuan;
“Jauna dek” esan zion Pedrori.
Onek au entzun onduan,
jantzi ta salta uran gaiñera,
beregana jun orduan.
Besteak laister etorri ziran.
oso urrean zeguan.

Eun da berroeta amairu arrai
aundi arturik sarean,
Jaunak agindu zien jateko;
ta bazkaldu zuenean,
Jaunak Pedrori esana zion,
begiratu zionean:

“Simon, Joanen seme zerana,
maite nazu geiengan?”

Erantzun zion: “Bai, Jauna; Zuri
dakizu nai dizutala”.

Jaunak esna: “Zaitu itzazu
arkume nere dirala”.

Jaunak: “Zu, Simon, Joanen seme
maite nazu egi dala?”

Erantzun: “Bai, Jauna. Zuk dakizu
nik maitatzen zaitudala”.

Jaunak galdetu: “Maite al nazu?”
irugarrengo aldian.

Galdera onek Pedro jartzen du
oso tristura aundian.

Erantzun: “Jauna, dana dakizu:
nai dizutala egian”.

Zaitu itzazu nere ardiak”.
jarri zuan goinenian.

Pedrori Jaunak esana zion
kargakin gelditzen zala:
“Egiaz dizut: zartzen zeranean
ezin jantziko zerala;
ta zuk jun naiko dezun lekura
iritxiko etzezala,
zuk nai ez dezun lekura bestek
eramango zaituela”.

Gurutzetuta ilko zuela
Pedrok entenditu zuan,
ta Joan nola ilko ote zan
Pedro galdetzen zeguan.
“Zuri zer inporta dizu orrek?
–Jaunak erantzun orduan–.
Bizirik utzi nai badet ere
zuk segi nere onduan.

83A. ANDRA MARIA GORPUTZ ETA ARIMA ZERURATUA

Ama bizi zan erretiruan
Jauna piztu zanetikan,
Zenakuloa zan etxe artan,
Jauna an ikusirikan.
Pozez bizi zan aingeruakin
Jaunari kantaturikan,
berrogei egun pasa artean
erten gabe bertatikan.

Zorionekoak koru bat ziran
aingeru ta santuakin,
bakoitzak bertso bat kantatuaz
doiñurik politenakin.
Birjiñak erantzuten zieten
bakoitzari bertsoakin.
Birjiñak erantzuten zieten
bakoitzari bertsoakin,

sortzen zituan bertso berriak
sarri jakinduriakin.

Ama Birjiña asko pozten zan
alabatzen Jainkoari,
baitare bertsoak erantzuten
bere aita ta amari:
Santu Joakin ta Santa Ana
gorputzak zaidenari,
San Jose eta Joan Bautista
ain maite zituanari.

Ama Birjiña pozen artean
etzan aztutzen gurekin,
errukitzen zan gure lurreko
mixeri guztiarekin.
Aitari auxe eskatzen zion:
“Lagundu graziarekin,
lege berria jakin dezaten
danak maitasunarekin”.

Aitak agindu bi aingeruri
Mariari deituzteko,
eraman eta beren aurrean
auspeltu adoratzeko.
Betiko Aitak esana zion
goragora igotzeko,
iru Pertsona zeuden tronuan
laugarrena an jartzeko.

Asko arritu ziran santuak
Birjiña an ikusita,
Erregena zan tronu artantxe
jarri zuen eserita.
Danak arritzen zeuden begira
kriatura an jarrita,
eta abestu esanaz danak:
“Egin dezu ederki ta”.

Aitak esana: “Nere alaba,
lege berri grazizkoa,
nere Semeak Eleiza santa
munduan jarritakoa.
Zurekin fiatzen naizelako
zu zera zaituztekoa”.
Jaun Espiritu Santuak esan
“Emazte biotzekoa”.

Seme Jainkoak esana zion
“Ama, nua Aitagana.
Nere lekuan nere Eleiza
dezu zaitu bear dana.
Bere seme ta nere anaian
artzai gelditzen zerana,
au da zeru-lurren Erregiñ
Irutasunak esana.

ALDALUR'tar JUSTIÑE
(KLARATARRA)
(GASTEIZ)

ARAGI-JALEAK

Abere edo pizti batek larrako bedarra jatea egokitzat artzen dogu. Baiña landara batek aragia jatea? Eziña dala dirudi.

Gai oneri buruz ipuin asko zabaldu dira munduan. Ego-Ameriketan esaten da "eriotz-lorak" deritxenak aragia eio naiz iruntzi egin leikeela, baita Guaiana'ko orri batzuk tximiñoia arrapatzen dabela edo Mexiko'n diran zuge-antzeko landara batzuk euren beso luze artean arrapatzen dabena ito egiten dabela.

Gure artean landara aragi-jaleak ez dabe bildur aundirik emoten, txikiak diralako., baiña kontuan artu bear da landara onein arazoa.

Izen politik daukez: intz-lorea, eguzki-intza, rosela, gorrituna... landara oneik orri ibiltariak daukez, azurba-koak, eta batez be zorroak arrapatzen dabez. Ori egiten daben orri batzuk txiki ta biribillak dira, beste batzuk, esaterako Ameriketa'n dagozan mota batzuk, ogeta amasei zm.'ko luzerea dauke.

Batzuk zeozer arrapatzen dabenean euren barrura sartzen dabe, beste batzuk geldi-geldi egoten dira eltxoren bat noz etorriko euren usain gozoko zulora. Sumatra ta Madagaskar'en barrez jazoten dan estalki bat zabaltzen dabe. Onei biska-eiztariak deritxe eta eiztarako zabaltzen daben orria gorria da.

Baiña arrigarriena zingiretako zorroa da, onek ez dauz jaten arrapatzen dauzanak. Eiza ori jolasbide bat daña dirudi.

LARRA-BEDARRAK

Guztiok oinpean erabilten doguz bedar oneik. Eta bedar-mota ugaria da landetan eta basa-oianetan. Iñok

ez dautse garrantzirik emoten, begiratu be ez.

Korapillo batzuk dauz lurtean eusgarri. Eta ari-antzeko batzuk zabaltzen dauz. Eta azkenean burutxu bat argitaratu.

Iñurriak euren moltzoak egiten dabez iges-leku, eta etxe ezkutu biurtzen dira eta beste abere askorentzat mai zabal. Eta orrelan zabaltzen da bedarren azi txikia inguru guztietara.

Zoragarriak dira gure landetako bedar txiki oneik. Oloaren loretan jartzen dira aziak eta errez jausten dira lurrera eta bedar ebagi-barria

usain gozokoa izaten da.

Arratsaldean bedar oneik metatu egiten dira eta kirkillak abi-arteant kantari dabiltz zelaiak eta soloak bakean dagozen arteant.

Arjentina'n ez da ereiten alfalbedarra baiño, Brasil'en kaktus zaintzea naiago dabe...

Baiña landa zabal orlegiak gau baketsuan artegien txilin-otsa dakarre goi-zelaietan.

Zuek guztiok, landarak, bedarra, zaree, lur-bira osoa estaltzen dauan bedarra.

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua



Palmondoa bere datil-frutarekin eta platanondoa frutu-mordo batekin.

KALE-IZENDAGIA (BAKIO)

Kale izendegia zelan erabili:

Kale izendegia, izenak eurok euskera utsean dagozala-eta, eguneroko bizitzan erabilteko arazorik ez leuke egon bear, edozein berbetan darabilgula. Izen generikoari -a artikulua kendu eta izen bereziak deklinetan diran eran jokatu. Izen generikorik ez dagoanean, orduan, izen berezitat artu eta alantxe be jokatu. Ori berori izango da-eta, beste berbetako zuzenbideak (elbideak) gurean erabilten doguzanean, egingo doguna, esaterako:

- Zuzenbidea, mesedez?
 - **Aldatsa kalea, 23**
 - **Albobide, 23**
 - **Lapikolurreko mallak, 23**
- Non bizi zara Bakion?
 - **Aldatsa kalean** bizi naz
 - **Aldatsa kaleko** 23an bizi naz
 - **Albobidean** bizi naz
 - **Albobideko** 23an bizi naz
 - **Lapikolurreko malletan** bizi naz
 - **Lapikolurreko malleta-**
ko 23an bizi naz
- Non bizi zara Dublinen?
 - **Flint street** kalean bizi naz
 - **Flint street, 23** kalean bizi naz
 - **Flint street** kaleko **23an** bizi naz

(Alantxe be, Nondik, Nongo, Nora, Noragino, Norantza, ...)

Ori esateko gauza bagara euskeraz, zelan ez dira izango, bada, beste berbeta batzuetan dabilzanak gure kale izendegia eraz esateko bestekoak? Berbarako:

- Your address, please?
 - **23, Aldatsa kalea**
 - **23, Albobide**
 - **23, Lapikolurreko mallak**
- Dónde vive Usted?
 - (En la) Calle **Aldatsa kalea 23**
 - (En la) Calle **Albobide 23**
 - (En la) Calle **Lapikolurreko mallak 23**

TOPONIMIA: AZALPEN-ERISPIDEAK

Toponimia mapa onek barrikuntza asko ekarriko ditu. Beratan ezarriko doguz etxe, erreka, itsasoko atx, mendi,

baso edo inguruen izenak, ez danak, garrantzizkoenak bai, ostera. Barrikuntzarik andiena, baina, auzo izenetan dago. Zaarrak barri, egia esanda, izen istorikoak atzera eskuratu doguz eta. Auzo izenok 1980. urte ingurura arte izan dira erabiliak, antxinatik: **Artzalde** (1876), **Goitisoloalde** (1876), **Elexalde**, **Urkitzaurrealde**, **Zubiaurrealde** eta **Gibelortzagako San Pelaio** (1565). **San Pelaio**-ren kasuan 1414. urtean leenengoz agertu eta 1745. urte ingurura arte erabilia izan zan bertako leku-izena eskuratu dogu atzera: **Gibelortzaga** edo **Gibelorrazaga**. Toponimia bear onetan denporan muga bat imini bear izan dogu, au da, izenak toponimo istorikotzat artutekoa, atan be. Ori mugaori 1955. urtea izan da, urte orretarik beera agertutako izenak leku-izen istorikotzat artu doguz eta areexek erabili doguz mapa au egiteko. Toponimiaren ganeko ikerketea oraindik inokarren ez dago amaituta. Leku-izen geiago agertuko dira, eta batu doguzan leku-izenen ganean argibide geiago daukagunean be, aldakuntzak egongo dira eurok idazterakoan. Au da, egindako bear au, oraingo, bein-beinekotzat artu bear da eta ezin leiteke, bada, inondik inora azkenengotzat emon. Alan eta guzti be, bear onegaz erriko leku-izenen idatzizko normalizazio bidean aurrerantzako oinakada sendoa egingo dogun arren, normalizazio bide orrek zabalik iraungo dau, urte batzuetan, beintzat..

Gure asmoa izan da erriko toponimiaren emoiak goitik beera errespetetea, erriko toponimiari jagokon inguru etnolinguistikoa, atan be. Batzuetan, zer baterako leku-izen bat baino geiago euki doguz aukeran. Orretan, gure jokabidea izan da, izenik zaarrenari bide emotea eta beste edo besteak, oraingo, bigarren maila baten iztea: **Amorenaetxebarria** (*amuetzebarri*), **Azeretxogoitia** (*astxoitxi*), **Elexpuruerrota** (*katxuene*), **Kontxaondo** (*oloskoetze*), **Mintegibekoa** (*mintxiri*), **Zintadui** (*sintxiri*), **Zubiltegi** (*subiltxi*), **Zubimusu** (*sumusu*), ... Ori izan da, batez be, etxe izenetan erabili dogun jokabidea, jatorrizkoa aukeratu dogu aalezkoa izan dan eran. Orretariko izen askok, batez be, XIX. gizaldian eta XX. gizaldia- ren asikera galdu eben jatorrizko forma, leengo areek maiztuta edota jatorrizko izenen orde ezizenak artuta agertuten zirala: **Agirre** (**Agarre**), **Agirretxu** (**Agarretxu**), **Amorenaetxebarria** (**Amuetzebarri**), **Aretxeta** (**Aritxeta**), **Aurrekoetxea** (**Alardoena**), **Balandaerrotia** (**Telleria**), **Bekoetxe** (**Patxuelena**), **Bekozaitua** (**Larrena**), **Elexpuruerrota** (**Katxoena**), **Erkoreka** (**Sanioalde**), **Erremitteria** (**Makuena**), **Errotatxu** (**Panaderiena**), **Ibarratorre** (**Torrezar**), **Ioanlopetxena** (**Jolapitxena**), **Kortaeta** (**Gortena**), **Larraskoaga** (**Indarrena**), **Larraskoagagoikoa** (**Gerekaena**), **Larrazabal** (**Larrondo**), **Kontxaondo** (**Olaskoetxe**), **Markoena** (**Santiena**), **Minitua** (**Mintua**), **Minituatzea** (**Mintuatze**), **Perdiotxena** (**Pertxena**), **Ugartebarri** (**Benguriena**), **Zaitubeazkoa** (**Biosko**), **Zubiaurregoikoa** (**Tabernazar**), **Zubimusu** (**Zumusu**)... Idazkera bat baino geia-

go egon danean toponimoak aalik eta osoen idaztea ebatzi dogu: **Seubaerreka, Urkitzaurrealde...** Aurrerago aitatu dogun lez, Bakioko berbetea izan da oinarria toponimoak normalduta idazterakoan, baina bizkaiera idatzi arautuaren bidean ibilita. Izan be, leku-izenak eundaka urteetan bertan berba egin dan erriko euskerearenak dira. Erriarena dana Erriari atzera emotea, azken baten.

Alderdi batetik, izen zaarrak galdu-galduta egon edo beste batzuk sano aaztuta egon diranak barrian atara doguz azalera, erriak egunean-egunean erabili daizan. Bestetik, azkenengo urteetan erriko kultureagaz zerikusirik ez dauken izen barri batzuk (“*el barranco del infierno*”, “*el cale-ro*”, “*fuentes helada*”, “*la isla de los conejos*”) agertu dira, arrotzak, errikoak ez diran pertsona batzuk sortu eta erabilten asiak izan diralako, seguru antzean, erriko leku-izenen barri ez dabelako euki. Arrazoi nagusi biokaitik, bada, erriko toponimiaren normalkuntzeari garrantzi andiko deritxogu, bai erriak berak, bai erriko, Bizkaiko edota Euskalerriko eskola eta administrazio mailan edo edabideetan egokiro erabiliak izan daitezcan. Ez dira, baina, mapan agertuko batu doguzan toponimo guztiak, orrenbesteko leku txikerrean agertuteko asko diralako. Ori alan izanda, beste biderik ez genduan euki, bada, daukaguzan toponimo guztietatik garrantzitsuenak eta esanguratsuenak aukeratutea baino, mapa orretan agertu daitezcan.

Toponimiak erakutsiko deusku errian zelango aberastan linguistikoa daukagun, orreotariko leku-izen batzuk joandako urteetako gomutapen linguistikoan loak artuta lotu diran arren. Aor, esate baterako, **Barturen, Gibelorratzaga, Ibiaga, Lorrekoibi, Zarraga, Zarratxo, Zintadui, Zubiltegi** toponimoak, geientzako esangura iluneko izenak dira gaur egun. Zergaitik? Inoz, Bakioko euskeraz toponimo orreen barruan dagozan *barruti, gibelo-*

rratz, ibi, zarra, zinta, zubil berbak egunean-egunean erabilitako berbak izan ziran, oikoak. Baina, gaur egun, berbak leku-izenen esangurea argitu baino ilundu egiten dabe, aspaldian galduta dagozalako eguneroko erriko berbetan. Alan eta guztiz be, toponimian lotu jakuz, bizirik.

Toponimoak idazterakoan, bada, gorago aitatu dogun lez, gaur egun erabilten dan bizkaiera idatzi arautuaren bidean aalik eta geien ibiltea erabagi dogu gure berbetaren normalkuntzeari begira, kasu gitxi batzuetan izan ezik. Toponimoak idazteko erabili doguzan erispideak arean argiago izteko, urrengoan azalduko dira artutako ebatziak:

– Etxe izen eta abizen zaar asko artikuludunak (-a) dira, euskeraz toponimorik geienak artikuluko bakoak izan arren. Gaur egun, etxe izen orreek (eta artean etxe izenak ez diran beste batzuk be) artikuluko barik esaten dira, alan eta guzti be, batzuetan, dokumentauta dagozan kasuetan, idazkera zaarrari eustea ebatzi dogu, berbarako: **Abarroa, Aldekoa, Amorenaetxebarria, Andiñobarrrena, Armurua, Arroa, Aurrekoetxea, Axnagusia, Azeretxogoitia, Baratiznagusia, Baratiztxikerra, Barturenbekoa, Barturengoikoa, Bazterretxea, Beitia, Bekozaitua, Bengolea, Bengouria, Bidegoitia, Errementeria, Errenteria, Etxebarria, Gana, Garaiko motea, Goikoeetxea, Goikolea, Goitia, Igartua, Irabiengorria, Jatabienerdia, Jatatzikerra, Kukutsa, Larraganbasoa, Larraskoagagoikoa, Lorrea, Minitua, Minituatzea, Mintegibekoa, Ondarra, Ortubebekoa, Ortubegoikoa, Telleria, Ugarteigoikoa, Uribarrena, Urizarretaurrekoa.**

(Jarraitzeko) INIAKI MARTIARTU

ZU ETA ZEU / NI ETA NEU

Euskeraz beti bizi izan gareanok ondo erabilten doguz izen ordeok, baia oraingo idazleak Zeu izan bear dauanean be Zu idatzi daroe beti. Zu eta Zeuk eta Nik eta Neuk ez dabe esangura bardiña ba.

Elizako otoitzak be Zeu izan bear dauanetan Zu idatzita dagoz.

Gipuzkoarrak beti erabili daroe Zu baia guk bizkaitarrok ondo bereizten doguz Zu eta Zeu.

Zu laguna zaitut esaten dogu baia inoz bere ez laguna zara Zeu.

Izen ordeok noz erabili bear direan azalduetea ez da erreza baia euskaldun jatorreri berez-berez urtetan dauskue itz egikeran.

Gure Aita otoitza be, Geure Aita bete-beteen esan bearrean Gure Aita irakatsi dauskue eta ez dago ondo.

Gure Aita motel agertuten da bizkaieraz egiten dogunontzat beintzat.

Geure Aita, bete-beteko itzak, izan bear dabe ba, geure otoitz gurenaren asikerako itzak.

Euskereak konturatuten ez garean olako zer asko daukaz.

Euskaldun zarrakaz berba egikeran konturatuko zarie adi-adi arei entzunez gero.

Euskaldun jatorreei berez-berez urtetan dausku ba nez Zu eta nez Zeu esan.

AURRE APRAIZ'ek

AFRIKA

OIANA

Afrika'ren bihotz-biotzean baso baltza edo oiana da nagusi, aizkorarik iñoz sartu ez dan lekua.

Afrika izenak sasia gogoratzen dauku, baita euri ugariak eta eguzki kizkalgarria be. Batzutan zugatzen adarrak goian alkartzen dira eta eunka km.'ko luzeran. Ez da eguzkirik ez aizerik sartzten, txoriak bai ugari abarren artean. Lurrean orbela naikoa.

Olako lekuetan gaur bideak ugari dagoz.

Bufaloak, gorilak, basurdeak eta antilopeak asko agiri dira.

Baso orreitako biztanle bakarrak pigmeo edo gizaki txikiak dira eta biderik bide dabilz.

Goiko abar-artean be bizia ugari dago: Tximelet margotsuak, kolore guztietako txoriak, eundaka tximiñoiak txikiak amearen lepoan doazela.

Ez dira beera, lurrera, jatsiten eta, diñoenez, ba-dira iñok ezagutu ez dauzan motetakoak be.

BASOKO LEIÑUAK

Lurralde zabala dan lez, biztanleak be askotarikoak dira, baiña eundak leñuetan, leiñu bakoitzak bere izkuntza eta oiturak dauzala.

Batzuk Europa'tik joandako oiturak onartu dabez, lengoak itzi barik.

Askok meategietan egiten dabe lan gaurko tramankuluakaz.

Emakumeak erri-osagilleai entzuten dautsee baiña asi dira gaiso-etxeetara joaten. Umeak misiolarien ikastegietara josten dabe lanbidea eta lurra lantzeko erak ikasteko eta iñoz Europa'ko ikastetxeetara be urreratzen dira.

Baiña leiñu askok ez dauke oraindiño Europa'ren iku-turik, esaterako Kongo'ko bakututarrak: Ibai-ertzetan bizi dira, zugatz-artean egiten dabez euren soloak eta txabolak. Errez azten diran platanoa ta artoa ereiten dabez, barazkiak be errez eta ugari lortzen dabez eta lurrak ezer emoten ez dauanean beste leku batera joaten dira.

Eiztari trebeak dira eta giza-aragia be jaten izan dabe eta jaten daben gizakia indartsua ba'da, eurak be indartsu egingo dirala uste dabe.

Dantzari onak dira, eragin onagaz.

GIZON TXIKI EDO PIGMEOAK

Pigmeoak Kongo'ren iparraldean bizi dira: Munduko gizonik txikiak dira, 1.40 m.

Biotz onekoak eta umeen antzekoak dira.

Basoetan ibiltari ikusten doguz eta ez dabe lurrik lantzen. Eiztari onak bai ba-dira baiña egunero lekua aldatuta. Txabolak egiten dabez.

Euren lurretatik gitxitan urteten dabe, iñoz bai zerbait erosteko edo saltzeko.

Zugeak eta kokoak dabez janari, baiña pizti aundiak be arpatzen dabez jateko.

Txikiak izan arren ausartak dira eta elefanteak arrapatzen be ibiltzen dira euren anketako zanak apurtuta.

Ez dabe bear jantzirik, orriak dabez naikoa.

Taldeetan edo sendietan bizi dira. Oiturak ba-daukez, baiña ez legerik.

Boskimanoak dira beste euren arteko talde bat, illunagoak eta pizka bat aundiagoak eta aurpegia baltzen antzekoa daukela.

BASO BALTZA

Oian aundiaren sortaldera eta basamortuaren egoaldera Afrika'ren baso baltza dago: Goi-zelai aundiak, bizkar luzeak, batzutan bedar aundiak, eta iñoz legor-aldeak be bai, baiña geienetan baso baltzak. Gaillurretan edurra eta bero-aldietan uriola aundiak eta ibai ederrak.

Toki orreitan ugariak dira piztiak: Leioak, zebra, jirafak, rinozerontek, bufaloak eta antilopeak...

Or ikusi al izan dira eiztari trebeak abere-mota asko galtzeko, baiña gaur eiza onek bere auarauak daukaz. Safariak egiteko baimena bear da, ez ilteko, argazkiak egiteko baiño.

An bizi diran gizakiak, leiñuak, artzaiñak dira, leiñu bakoitzak bere folklore aberatsa dauka eta askok zurientzat egiten dabe lan.

Su-mendiak be agiri dira inguruetan, zingirak be bai.

Lurra oso emonkorra da eta kafea, liñua, ta kautxua ugari dagoz. Abereentzat bedarra be naikoa, baiña lana ez dabe ondo eratzen.

KILIMANJARO

Afrika'ko mendirik aundiena Kilimanjaro da. bakarra, inguruan beste mendirik ez dauala, 5.900 m. gora, erpiñean geienetan laiñoa ikusten da.

Amaituta dagoan su-mendia da eta agoak 1.600 m. daukaz. Edurrak iparraldea estaltzen dautso eta beste aldeetan pizti-mota asko bizi dira.

Inguruan bizi diranak mendi oneri "jainkoraeran etxea" esaten dautsoe eta euria eskatu be bai. Mendiak olako erreguak entzuten dauzala uste dabe.

Erreza da Kilimanjaro'ra igotea eta txangolariak igioten dira. Baiña bertakoak ez dabe olakorik egiten, an bizi dan jainkoari atsegin ez jakola uste dabelako.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKALERRIA ZELAKO JOKOAN SARTUTA DAGON (II)

Leenengo zatian ikusi doguna, erdira-zale menperatzailleak edo espataren bidez ipinitako Laterri onein jaurgo-zaleak, zelako jokuak erabiltzen dabezan indarrak euren alde batzeko, Mundu onetan daukien sasi-jainkotasunaren asmakuntzak berezko erritarren gaiñetik iraun dagien.

Baiña Mundu au fisik-arauzkoa dan lez, beartasunaren aurka berezko aurk-ekintza bereala agertzen jako eta aldi onetan sozialismu-erkidetasunaren jokoak ikertuko dogu.

Sozialismoaren erkidetasunezko alderdi-gogoak eta bere egoarri edo eraman-onaren (filosofia) asmakuntzak XVIII'ko gizaldiaren azkenetan asten dira, Ingalterra'ko Trade-Unions langille-elkartasunezko bide-tik, aberats-gordetzaille eta menperatzaillearen esku-osodunetatik babes-teko.

Gero, langilletasunezko gizarte-egarriaren antolakuntzari erantzuna emoteko agertu ziran Aleman jakin-zale (filosofo) Georg Wilhelm Friedrich (HEGEL) 1.770-1.831'ko urte bitartean bizi zana, eta beren eragipenetik: Ludwig'tar Andreas (FEUERBACH) 1.804-1.872'arteko urteetan bizi zana eta Marx ta Engels'en jakin-zaletasunean (filosofia) eragipen aundia euki ebana.

Marx 1.818-1.883 urte bitartean bizi zan, eta Hegel'en gaitik eragipenduta, Alemania'ko "Langilleen-Elkargoa" antolatu eban. 1.864'an leenengo "Erritarteko-Langilleen-Elkartasunaren"(primera Internacional) sortasunean esku-arte aundia euki ebana.

ENGELS'tar Friedrich, 1.820-1.895'eko urte bitartean bizi zan. Marx'en lagun eta kide aundia, bigarren "Erritarteko-Langilleen-Elkartasunezko" (segunda-Internacional) zuzendaritzan artu-emon aundia euki ebana.

Eta, LASSALLE'tar Ferdinand 1.825-1.864'ko urte bitartean bizi

zana. Onek, Marx'en Sozialismuko-eragipenetik, "Sozialismua eta Abertzaletasun edo Errikotasuna" antolatu eban. 1.848'an Marx ta Engels'ekin Alemania'ko iraultzan zer ikusi aundia euki eban. 1.863'an "Alemania'ren Orokorrezko Langilleen-Lagundia edo Elkargoa" irasi edo sortu eban. Eta orren ondoriozko eragiñean, gero, "Europa ta Alemania'ren Gizarteko-Demokrazia (social-democracia)" izango zana sortu .

Gizon aundi onein ikerketa guztiak gizartearen gora-beran eta lortu eben jakintza filosofu bide ortatik, gizarteko eskubideetan oiñarrituta egon ziran eta orregaitik berezko erritarren eskubide artean.

Baiña, Frantzia'ko iraultzaren asmakizuna onartuta, Laterriak izan daitezkan berezko erri ta erritarren jabetasunen gaiñetik: Diru-zaletasunezko merkatariak; erregetzaren inguruan odol-garbikoak edo andikitasunezkoak ziranak, gudalozteak euren alde eukita eta katolikotasunak lagunduta, Erroma'ko Eleizak Mundu'ko gizarte guztia euren erlijiozko antolakuntzapean gura dabezelako euki, daukaguzan Laterrietan oiñarritzeko alegindu ziran, Batikano be Mussolini'ren baimenagaz 1.929'an Laterrituta.

Orregaitik, asmakeri orren bidez agertzen jaku gaurko uste-bitxi edo ustegabekeri au, guzur-antzekoa emoten dauana, guzurre dalako, JAUNGOIKOA'k emonda danok daukagulako GIZA-BARNE au oituzazko eraginkizunean jokatzeko eta SASI-ASMAKERI orreik, danon GIZA-BARNE ori euren agindutara menperatu gure dabelako, ainbeste borroka-latz eraginda.

Gaur, Sozialismu edo Gizartearen babes alderdian jokutzen dabizenen artean, ez dakie noren aurka jaio ziran, danok, Europa'ko erritarrak garela esaten dabelako, bakoitzaren eta erri-gizartearen NORTASUNAI narda egin edo ontzat ez dabelako artzen.

Orrek esan nai-dauana, eurak be gai-zale arrapailu edo domutzezkomenperatzailleak biurtu dirala, gizartearen-barnean, Izatasunezko-Nortasunak diranak alboratu egiten dabezelako eta Laterri menperatzailleak on artzen dabezelako.

Eurak be.....gizartearen klonazio-zaleak ?. Bestela zelan aitu gizartearen babesle izan eta arima-gabeko gizartea izan dadilla ?.

Argi dago Laterri menperatzaille jaurgotiarak (constitucionalistas) biurtu dirala, eta guzur aundi baten gaiñean oiñarritu gaitezen alegiñetan dabizela, Espaina'ko Laterriari aberri edo sorterrizko mailla emoteko.

Eurak be ez dakie buruan daukien korapilloagaz, daukien ametsan gogoratzen ba-dira.... ARIMA-GABEKO EUSKALERRI-BATE-GAZ.

EUSKALERRIA:

Euskaldunak, begiratoki ederrenean gagoz Espaiña'ko Sozialismuaren guzurak eta Erdira-zale menperatzaillearen guzurak gure sinismenerako ziñeskintzakoak biurtu gure dabezela ikusteko.

Orregaitik, guzti orrei jakiñezko arrazoi aundiagaz aurre eginda zeatasunezko zentzu aundi baten, gure Euskal-Nortasuna aldarrikatuaz lortu. Erritarren artean gurasoaren-ondorea galdu dabenentzat, euren giza-barneko arrazoiaren aurrean latz agertu jakiela, daukien izatasunaz gain beste gauza bat dirala esan dadin.

Orretarako, Euskalerriko Abertzaletasun guztia apal-apalik eta politikazko zuurtasun guztiaz ERRIA ELBURU DALA, zintzotasunean eta DANOK BATERA JOKATU BEAR DOGU.

“IBARRETXE'ren
ESONDAPENARI EUTSI!!”

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZA'n

2.005'an JORRAILLA'ren 28'an

BARUCH SPINOZA (1632-1677)

Malebrantxe kristiñau eta eleiz-gizon zintzoa zan, baiña bere filosofiak dana-jainkotasunaren arrisku bat eukan, berak iñoz onartuko ez eban arriskua.

Baiña beragaz ia batera bizi zan Spinoza`k ausarti emon eban urrats ori, Spinoza dana-jainkotasunaren aldekoa dogu, argi ta garbi.

Amsterdam`en jaio zan, jatorriz judatarra zan famili baten, baiña Burgos`ko Espinosa de los Monteros deritxoan erriagaz be ba-eukan zer-ikusia. Gaztetan ikasi eban ebraiera etsa Biblia aztertzen zalea izan zan, gero matematikak, latin eta greko be ikasi ebazan eta gazte zala ezagutu eban Deskartes`en filosofia

Ogeta bi urtekoa zala eta bere gurariz, itzi eban judatarren erlejiñoa eta urte bi geroago sinagogatik kanpora bialdu eban.

Heidelberg`eko Ikastetxe Nagusian filosofoa-irakastegia eskiñi eutsoen, baiña ez eban onartu. Bera il-ostean argitaratu zan "Etica more geometrico demonstrata" liburua. Ordurako zabal ebillan ateo edo jainkoagabea zala.

Bere filosofia`ren oiñarrian Deskartes dago eta mundua zertasun bakarria izatea da oiñarri. Ortik atera eban bere pentsabidea Giordano Bruno`k. Onek burubide orregaitik galdu eban beronen bizia.

Deskartes eta Malebrantxe`ren bidetik asi arren, laster eldu zan Spinoza dana-jainko zaleen bidera: Munduaren zertasun bakar ori Adimen bakarragaz bat eginda dago. Osotasunik osoena da gutzat, bere ustez, zertasun bakar orren eta adimen bakar orren zati garala jakitea.

Baiña erizpide orrek ez dauka zer-ikusirik fedegaz, fedeak beste bide batzuk daroaz, ez filosofiarenak.

Danajainko erispide orretatik ateraten doguz beste burubide guztiak, Jainkoa eta izadia gauza bat bera dirako.

Ezagutzerako lau urrats emoten doguz, entzudakoa bide lez artu barik: Lenengoa gure irudimena da, ezagutze illuna, or dagoz burubide orokorrak, uribersalak. Bigarren buru-argia dator eta au benetako ezagupena da eta burubide argiak daukaz, pentsaerea bera eta aurrean dagon zabal-

tasuna. Baiña beste ezagupen bat dago ohea, intuiziñoz Jainkoa ikustea, Jainkoa bere izaera guztiagaz eta beragan dagozan gauza guztiakaz. Gizonaren burua ez da besterik "danean dana dan adimen neurri bakoa" ren zatia baiño.

Ez gara ba Jainkoagana eltzen gauzen bidez, Jainkoagan ezagutzen doguz gauza guztiak Jainkoa ta gauzak bat diralako, Jainkoa, zertasuna eta izadia gauza bat beraren iru izen dira.

Deskartes`en antzera diño Jainkoa bere buruaren jatorri dala (causa sui), baiña "causa" edo jatorri berba ori, "azalpen" lez artu bear da.

Eta askatasuna zer da orduan? Ez da besterik barruak nai ta nai ez eskatzen dauana betetea baiño.

Ondo ulertu eban Spinoza`gan Berthysek`en, irakatsi ori ez zala besterik Spinoza`gan benetako Jainko-ukatzeta edo ateismoa baiño.

Deskartes`ek ondo bereiztu ebazan Jainkoa ta gizakien arimea, ez ostera Spinoza`k, onek bitasun ori alboratu eta gizakien adimena ta Jainkoarena, Jainkoa ta gizakien arimea zertasun edo sustantzi bat dirala diño. Deskartes`en mekanikeria bai onartzen dau eta askatasuna ez da aukeratzeta, beartuta egotea ondo ulertzea baiño.

Eta politika-arlorra sartzeko, Spinoza`rentzat, fedea esanak egitea da eta politikak zuzendu bear dau gauza sagaratuen mundua, erri-agintariak esan bear dabe zer dan zuzena eta zer okerra gure jokabidean. Orra or eskubideen iturri bakarra, laterria.

Ikusten da ba, Deskartes`ek, fededuna zalako, emon ez eban urratza Spinoza`k emon dauala. Orrantza jotzen dabe buruargien bideak eta Platon`en ondorenak, baiña idealistena izango dan mundu ori ez da errez alkartzen gure zentzunen ekin eta ekin adimenera dakarrenagaz. Oraindiño buru-min aundiak izango dabez urrengo filosofoak gauza bi orreik alkartzeko. Bide orretan aurkituko dogu Leibniz`en "aurretiazko armonia".

OLAZAR`tar Martin`ek



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

IPUIN SARIKETA (BILBAO`KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA`K, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariaketa iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZA`k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik laur orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER`en argitaratuko dira. Sariarik irabazten ez dabenak be bai ipuiniaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA`ren etxean (Bilbao`ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer`en agertuko da, Urterilllean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.
- Sariak bost izango dira:

1.ª 300,50 euro	4.ª 120,20 euro
2.ª 240,40 euro	5.ª 60,10 euro
3.ª 180,30 euro	
- Ipuinak zein ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKARAZALEAK

LUDIA-IRETARGIA, IZARBELAK (PLANETAK), KOMETAK

Eguzkiaren inguruan biraka dabilzan izarkiai izarbelak deritxegu eta oneixek dira eguzki-ondotik asita: Merkurio, Venus (artizarra), Ludio, Marte, Saturno, Urano, Neptuno eta Pluton.

Merkurio txakur txiki baten neurria dala, Benus eta Ludio eiza-txakur eta txinpaze baten neurrikoak litza-kez, Marte tikiagoa da tximpaze emearen neurrikoa, Jupiter'ek Afrika'ko elefante baten neurria artuko leuke, Saturno txikiagoa Asia'ko elefanteen neurria, Urano'k eta Neptuno'k ipopotamoen neurria eta Pluton txakur txiki etxe-zaiñaren neurrikoa eta eguzkitik 8 milloi km.'ra dabil.

Eguzkiaren parean ipiñi ezker, aundiena, Jupiter eguzkia baiño milla bider txikiagoa da. Eguzkia esku-pelota izan ezker Jupiter idar garau bat litzake. Eta Merkurio orratz buru baten neurrikoa.

Milloika urteetan dabilz izarbelk eguzkiaren inguruan, eurena daben argi barik eta euren kiñua eta izarrena ez dira bardiñak.

LUDIA: Gure ama dan lurra dogu eta aztergarria da beronen edestia: Eguzkiaren zatia, sutan banatu zan one-gandik, otzitu egin zan milloika urteetan eta ura agertu ugari itxaso zabalak sortu arte.

Beste iñon aurkituko ez dogun gauza arrigarri bat jazo zan, jaio, azi eta il egiten zan eta ondorenak sortzen eba-zan landarea. Milloiak urteak geroago landara au senti-tzen asi zan, geroago ikusten eta entzuten (onek asmau eta egin ebazan ludian ondak ziran koloreak) eta ortik zabaldu ziran arraiñak, egaztiak eta beste pizti guztiak eta piztien artean, gauza arrigarria!, adimena lortu eban gizakia orain dirala milloi bi urte. Eta or daukagu lurra landaraz, piztiz eta gizakiz ondo orniduta. Amaitu ete dau aurrera bide ori?

Ludi onek bere buruari bira emoten dautso ogeta lau orduan eta urte betean eguzkiari bira. Eta or goaz gu igarri be egin barik aurrera izarren artean, segundoko 30 km egiten doguzala. Egun bakoitxean milloi bi ta erdi km. egiten doguz. Gaiñera eguzkiak guztiok batera garoaz Santio-Bidea dan galaksian, bere ardatzaren inguruan biraka eta Bega'ra bidean.

Ludiaren ardatz-biran gabak eta egunak eta toki bakoitxeko orduak (uso bakoitxean bat) sortzen dauz eta eguzkiaren biran sortzen dira urte-aroak. Bega'rantza bideak ez dau ezer egiten, baiña or ete dago danaren azkena?

Egutegiak aldakuntzak euki dauz, urteak 365 egun osoak ez dauzalako, zertxobait geiago baiño: Erromatarak 12 illebeteko urtea asmau eban baiña urte laburregia

zan eta noizean bein illebeta geiago ipinten eban. Julio Zesar'egin eban lenengo aldaketa, urteak egun lauren geiago eukala uste izanik lau urterik bein bis-sextus eritxon egun bat gaiñeratzen eban, guk zezeillaren azke-nean gaiñeratzen doguna. XIII Gregorio aita santuak egin eban urrengo aldaketa eta orretara urtillaren 15n. egunetik 4n'era. atzeratu eban egutegia, bidean galdu ziran amar egunak aurkitzeko eta geiago ori jazo ez dai-ten 400 urtean iru egun kentzeko agindu eban.

IRETARGIA: ludiaren satelite da eta 29 egun eta erdian emoten dautso bira lurrari. Eta lurretik 384 000 km.'ra dago.

Ez dogu sekula ikusi iretargiaren atzeko alde. Beti aurrea emoten daukuslako. Eta ori da bere ardatzaren biran (rotación) eta lurrari bira emotean (traslación) den-pora bardiña bear daualako.

Izar illa da eta arrisku bardiña ei dauka gure ludiak, baiña ez larritu, milloika urtean beariko dira .

Iretargia ibiltzen ikusten dogu, eguzkia lez eta sortal-detik sartaldera.

Bere goraberek edo faseak daukaz iretargiak, eguzkiak guri begira dagon alderdia eta atzekoaldea argitzen dauzalko eta guk zati bat illun ikusi bear.

Eklipseak be ba-daukaz, gure aurretikoentzat bildur-garriak. Batzutan dana estaltzen dau lurra, orduan eklipse osoa da, baiña zati bat estaltzen dauanean, ekilipse-zatia.

Iretargiak lurrari egiten dautson erakar-indarrak (atracción) bere ez da aundia baiña ba-dauka eragiña lurrean. Itxasoko urak beragana ekarten dauz. Ba-dauka orrek zer-ikusia landarak iñauzteko eta txertatzeko be.

Gizakiak iretargian oiña jarri dau, naizta emon eus-kuezan irudiak geroago asmauak izan, bertakoak argi ez egozalako..

Iretargiko eguna emengo amalau egunen neurrikoa da. Eta beste amalau eguneko gaba.

Laster sortuko dira meatzak andik ekarteko lan-taldeak.

BESTE IZARBELAK: Koperniko poloniarak igarri eban (1520) eguzkiaren inguruan dabilzan izarbelak eragin biak eukezala. Eta eguzkia zala ardatza. Kepler'ek aurkitu eban elipse baten dabilzala.

MERKURIO: Lurra baiño eun aldiz txikiagoa da. Ez dauko urik ez eguratsik eta 500°ko beroa dauka. Beti aurpegi bardiña erakusten dauku.

ARTIZARRA (Benus): Izarbelik argitsuena da eta goizean eta arratsaldean baiño ez da ikusten. Lurraren antzik geien daukana da, eta apur bat txikiagoa.

Emendik 40 milloi km'ra dago eta ara joateko alegi-ñak egiten dira.

Oksijeno gitxi dauka eta urik bapez, baiña beste batzun ustez ba-dau urte-aro bat euria daukana.

MARTE: erromatarren guda-jainkoa margo gorria daukalako.687 eguneko urtea dauka eta egunak gurearen antzekoak,24 ordu ta erdi. Ura eta odeiak daukaz.

Iñor bizi da Marte'n? Iñok ez daki. Baiña zergaitik izan bear dau lurraz biztanleak daukazan bakarra?

JUPITER: Aundiena da eta lurra 1 300 bidar artuko leuke barruan. Bere urtea gure amabi urte dira.Egurats aberatsa dauka odeiez eta lurrunez betea. Gorri-une bat dauka barruan,50 000 km.'ko luzereaz.

Oraindiño oso bero dago.

Amabi satellite daukaz, amabi illargiren antzera.

SATURNO:32 urte bear ditu eguzkiari bira egiteko eta amar ordu bere buruaren bira egiteko. Zortzireun lurren bestekoa da, baiña 100 aldiz ariñaogoa.

Eraztun bi daukaz inguruan, bera ikutu barik. Eta bien bitartean 70 000 km'ko illuna.

10 satellite daukaz, Titan aundiena.

URANO:Ludiaren lako lau da.,orlegia.Eguzkitik 3 milla milloi km.'ra dago eta 84 urte bear dauz gure urte bateko lana egiteko, eguzkiari bira emon.

Bost satellite daukaz. Eguratsa lainotsua, idrojenozkoa antza.

NEPTUNO:Matematika-bidez aurkitu eben., erakar-indarrak kontuan dirala.

Eguzkitik lau milla milloi km.'ra dabil eta eguzkiari bira emoteko 165 urte bear ditu.

Oso beroa da eta argi gitxi artzen dau.

Satellite bi daukaz: Triton eta Nereida..

PLUTON: Neptuno'ren ibillera ikusita susmatu eben beste izarbel bat egoala urriñaogoa.1930n. urtean aurkitu eben.

Gau utsean dabil biraka, eguzkitik bost milla milloi km.'ra.. Neurriak oraindiño ez dira ezagunak.Merkurio baiño aundiagoa dala dirudi.

KOMETAK: Izar lainotsuak dira, baiña oraindiño ez ondo ezagutuak. Batzuk uztai luzangak daukez eguzkiaren biran. Gitxitan ikusten diran lez, bildurra sartzen dabe.

Burua eta buztana daukaz., burua izarraz baiño illunagoa da eta buztana argia da.1811n. urteko kometak 160 km.'ko buztana eukan.

OLAZAR'tar Martin'ek eratu

URKIAGA BASARAZ TAR ESTEBAN LAUAXETA OLERKARI DIRDAITSUARI

Giza seme jatorra
Laukinizko gaiñean
sortu zan errira,
maitasunak lagunduz
egunsenti ederrez
urbilduz argira.

Argien argi zara
zeruak lagundurik
euzko lur ederrean,
zerua eta lurra
maitagarriak ziran
Laukiniz gaiñean

Argia artu zendun
doai zoragarria
txinparta artian,
egiz, zaindu zenduan
ertizko doai ori
bizitza guztian.

Berezko doai argiz,
gozaro, eldu ziñan
euzko parnasora,
ta zuk, beti, erantzun
gogorik onenagaz
euskal itz ezara.

Goiengo maillara
eldu ziñan olerkiz
euzko lur guztian,
euskaldun jakintsuak
sartu zinduezan
itz eder argian.

Olerkari argia
erriak maite zaitu
gizon ta olerki,
itza goratu dozu
euskaldun izatea
agertuz maiteki.

PAULIN

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

KATOLIKU EKINTZA ZALA-TA

Amaia'k ZER 307'an 1956'ko zerrendan. Abeli Gutierrez desagertu eta Zorriketa ta Uribiarte be bai 1952'ko artikulu orretan. Baiña 1952'an ez eben dantzarik egin berak baietz esan arren ez eta Jauregi'k, ez eta Beitiak, ez eta Rosalia'k, ez eta Inmakulada'k eta geiagok be ez, 1956'an izan ezik. Eta Bego Orozko'k naita berak ensaiuren baten edo esan "ponte ahí". Bego'k diño egundo ez ebalá dantzarik egin.

1952n. urtean dantzatu ebenak eta eurak esanda eta neu gogoratuta Etxezarraga, Egizabal, Urrutikoetxea eta Gaintza izan ziran. Neskak eurok be ez dira geiagorik gogoratzen. Gero, 1956'an Gaintzak eta Urrutikoetxeak be dantzan egin eben Rosalia'gaz, Inmakulada'gaz, Jauregi'gaz eta geiagogaz. Bi txanda areitan Amaia'gaz ibillita 1952'an eta 1956'an txistulari neu izan nintzan. 1950'ean txistu jotén ikasten asi nintzan eta 1952'an Maite Urrutikoetxea eta beste bat etxera etorri eta ori izan zan 1952'an sakristiko teatroan dantzatu zan etxe-ko erropakin eta 1956'an irlandera erropak kanpotik ekarrita dantzatu eben.

Amaia'k bere artiukulu orretan diño: "Berba egin baiño len, obeto eurái galdetu ondo jakiteko". Zu auxe esaten joan ziñan: Zuk dantza egin dozula eta niri emon zeunstazan 26 izenetatik askok esan dotzue: Nik ez 1952'ean eta ez 1956'an ez dot dantzarik egin. Eta Amaia'ren laneko argazki fetxabakoa ez da ez 1952'koa eta ez 1956'koa, bai 1958'ko abenduaren 8'koa, Andra Mari Taldekoak dantzan egin ebenekoa dalako.

26 izen orreitatik eta lantxu au argitzeko eta zuzentzeko eta egiaren alde eta lana zuzentzen laguntzeko datoak emon daustiezenen izenak agertzera noa, eurái biotz-biotzez eskerrak emonez.

Euron artean: Bego Orozko, Kar-

men Barrenetxea, M.C. Urizar, Mari Karmen Zabala, Bego Etxezarraga, Mari Karmen Elgezabal, Mari Luz Maron, Kontxi Gaintza, Arantza Yugero, Abeli Gutierrez, Mari Karmen Jauregi, Rosalia Moreno, Inmakulada Dalmau, M.B. Zorriketa, Maite Urrutikoetxea eta oneik be beste batzuei galdetu eutsen.

Gaurkoan orduko batzuk diñoste Amaia'k egin eban artikulua aldatzera doala eta nik enebala txisturik jo esatera doala. Bueno. Orraiño elduko ete gara ba, bear dana barik nai doguna esten aste ba'gara. ZER 307 eta 13n. orrialdean datorren argazkiaren ostean auxe dakar jarrita: "Gurutzeko plazan, eleizako taldearen dantzariak Andra Mari Taldera pasatu ziranak eta beste bost geiago". Baiña Galdakao'ko plazan egiña da eta ez lenagokoa.

Galdakao'n San Antolin Txikerra eguna nai ta neguan izan, uztaillaren bigarren domekan be egiten zan. Eta bietan Galdakao'ko Banda de Musica taldearekin, txistulari ta guzti.

Egiarte txistularia 17 urtekoa zala udako jai aretan bertón txistua jo eta gaztedi dantza taldeko Jose Meabe eta Joseba Arrietak aureskua dantzatu eben. Gero txistulari eta aureskulariok bueltan batera etorri eta ortik eza-gun-bidea lortu eben.

EZPATA-DANTZARIAK LORTZEA

1957n. urtean Jose Luis Egiarte'k Sabino Larrea'ri esan ei eutson ezpata-dantzari talde bat Katoliku Ekintzan lortzen ba'zan bera be txistua jotén pareuko zala.

Ortik gero, Katoliku Ekintzan Sabino Larrea idazkari edo sakretario eta Amantxi Meabe lendakari izateko geratu ziran, ezpata-dantzari talde bat sortu eta aurrera aterateko asmoagaz. Ni ez nintzan Katoliku Ekintzakoa izan eta an ez nintzan egon. Ezatadan-

tzariena gogoan artu eta gaztediko Josu Meabe ta Sabino Larrea jaunok alkarrengandik urbil bankuetan lan egiten eben eta ortik geroago Gaztedi'ko Arrieta eta Meabe jaunok.

Txinbera'ri esateko geratu ziran Galdakao'ko Dantzak irakastera etorri al ba'eben.

AZAROAREN 22'AN ZEZILIA SANTEAREN EGUNA

Azaroaren 22'an egiten dan Musiku guztien zaindariaren eguna zala-ta, Galdakao'n 1957n. urtean koralak egun ori ospatzeko jaialdi bat Zine Regio'ren tokian egin eban. Udalak be 1957n. urteko Zezilia Santearen eguna zala-ta gastuatarako zazpireun bat pezeta emon eutsozan Maksimo Moreno jaunari.

1957n. urtean, Galdakao'n ezpata-dantzariarik ez egoan lez, koraletik Jose Luis Egiarte txistulariak eta koraleko geiagok be Zezilia Santearen jaialdiko eguna ospatzeko Begoña'tik Karmelo'ko Gaztedi Dantza Taldea ekarri eban eta Eleizaldeko eleizea irudia eszenarioaren sakonera edo fondoan ipiñita egoala, jaialdia egin zan.

Eta gauzak orrelan, 1957'ko udagoienenean Santa Kurutzetik gero, Jose Mari Gaintza eta Ramon Larrauri Katoliku Ekintzakoak esanda, GAZTEDI'ra Txomin Untzalu'rengana dantza pausu batzuk ikastera joan ziran, gero an ikastitakoa Galdakao'ko parroko sakristian irakaste-ko asmoagaz.

Baiña Txomin jaunak Juan Orozko "Txinbera"ri esan eta jau ori Meabe eta Arrieta'ren esanaz gaiñera, bereala urte-pare bat inguruan astean iru egunean etorten ibilli zan eta Andra Mari dantza taldea izango zanaren dantza-maixu biurtu zan.

Jose Mariano Barrenetxea

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

ERRIALDE GUZTIEN EDESTIA INDITARRAK (K.A. 3000-1500)

Iparraldeko merkatariak euren itxas-ontzietan, Persia'ko itxasoa-zear, lenengoz Indi'ra eldu ziranean arritu-ta geratu ziran India zabala ta luzea eta ango biztanletza ugaria ikusi ebezanean. Ganjes ibairaiño eltzen zan jakintza-leku eder ori.

Aspalditik ziran nekazari trebeak eta kobrezko tresnak eukezan lurra lantzeko.

Euren urietan mutillak ziran zoi erreze etxeak egiten. Buztin-lana arrigarriri moldatzen eben eta koloredun marrazki ederrak marrazten ebezan. Gurpil biko gurdi astunak eukezan eta barazkiak eta mota guztietako lurra-ren frutuak azokara eroaten ekintzailleak ziran.

An egiten ziran azoketan guztitariko eder-lanak be aurkitu eikezan, urre ta zidarrezko tresneria be ugari. Erritar xumeak ezin eben alakorik erosi, karuak ziralako eta sendiak larri ebiltzan euren bear-izanai erantzun-ezi-ñik, eta ardurarik larriena zan eurentzak erregeari zor jakona lurretik ateratea.

Basapizti asko egoan inguruetan eta estu ibilten ziran rinozeranteai, katamotzai eta elefanteai aurre egitera-koan.

Ipuin eta abesti zarrak kontatzen eta abesten zaleak ziran, eta ori egiten eben euren arbasoengandik, ekiena zabaltzeko.

Eiztari trebeak ziran, egoaldeko basatiak bai beintzat, baiña gogo-lantzerako eta ederti-lanetarako asti larre-gi aurkitu barik.

Jainkoak, gizonezkoak naiz emakumezkoak, asko gurtzen ebezan eta euren omenez sarritan ikusten zira jaiak ospatzen. Jainkoen irudiak egitean, Tigris eta Eufrates-inguruan ikusiak ziran eta jaun-gurtza orregaz batera euren arteko artuemonak eta joan-etorriak beroak ziran.

Idazten ez ziran ain onak. Arrietan itzi eukuezan idaz ezaugarri batzuk, baiña oraingoz iñor ez da eldu ezau-garri orreik euki daikeen adierazpena ulertzer. Ez daukagu besterik geure ezintasuna agertu-berra baiño.

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua

GEURE JAIOTETSEA

Tenter-barrengo zelai-ertzean,
base-inguruan baketsu.

Errekatxu bi oiñetan garden.

Artotza ta Errekatxu.

Aize garbia osasungarri
arnasarentzat gozatsu.

Txori-kantuen eresi gozo
entzumenentzat alaitsu.

Igali-leraz uda barrian,
etsondoak zoragarri.

Badats uda ta udazkeneko
igali onak ugari.

Ortuariak janari eder,
solokoak ernugarri:

Etse-bazterra solo ta landa,
bizi-leku zoragarri.

Euzki-begitan, basetse zuri,
Mendietako Agerre.

Etxe-inguruko edertasuna
bazter, landa eta larre.

Toki obarik ezin daiteke
aurkitu iñun be iñunbere.

Txakur zintzoa etsea zaintzen,
txar daitezenen asarre.

Neba-arreba ta gurasoakaz
maitasunezko bizitza.

Siñismenezko bake-giroan
zorionezko egoitza.

Jaio eta asi giñan etseak
ba-ditu berein gomuta:

Beti izango da, gure gogoan,
Agerre'ren maitekuntza

Joan ziranak zeruan dira,
zoriontasun betean;


poza damozku arein gomutak,
gogo eta biotzean.

Bake ta poza gure artean,
beitez zorion betean;

Beti iraungo dau maitetasunak
sendiko batasunean.

Aurraitz'ek

EUSKALDUN BARRIENTZAT



LAGUNDU EIOZU GURPILLA ARTZEKO!